

FAKULTATEKO BATZARRAREN OHIKO AKTA **(2022ko urtarrilaren 28)**

Bertaratutakoak eta bertaratu ez direnak **(Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 22.2 art.)**

Dekanotza Taldea

1. Del Valle Loroño, Ana Irene – Dekanoa
2. Arlucea Ruiz, Esteban - Idazkaria
3. Doblaz Pozo, Patxi – Dekanordea
4. De la Peña Varona, Alberto- Dekanordea
5. Casado del Río, Miguel Ángel- Dekanordea
6. Ayestarán Yarza, Alazne - Dekanordea

Administrazio burua

7. Asensio Espina, Kizitiñe

Irakasle-ikertzaile iraunkorrak

8. Davila Legeren, Andrés
9. Meso Ayerdi, Koldo
10. Lasaga Sanz, Rafael
11. Novo Arbona, Ainhoa
12. Ganzabal Learreta, María
13. Lavía Martínez, Cristina
14. Antolín Iría, Enrique
15. Ispizua Uribarri, Marian (*ez da bertaratu*)
16. Amurrio Vélez, Mila
17. Miguel Saez de Urabain, Ainara (*ez da bertaratu*)
18. Pérez Dasilva, Jesús Ángel
19. Apodaka Ostaikoetxea, Eduardo
20. Camacho Markina, Idoia
21. García Ureta, Irene (*ez da bertaratu*)
22. Usín Enales, Sandra (*ez da bertaratu*)
23. Blas Mendoza, Asier
24. Otero Gutiérrez, Beatriz
25. Beaskoetxea Gangoit, José M^a (*ez zela bertaratuko adierazia*)
26. Martínez Herrero, M^a José (*ez da bertaratu*)
27. Orueta Estívariz, Gorka
28. Mendiguren Galdospín, Terese (*ez da bertaratu*)
29. Tellería Herrera, Imanol (*ez da bertaratu*)
30. Lazcano Brontons, Íñigo (*ez da bertaratu*)
31. Larrondo Ureta, Ainara

Gainerako IRIak

32. Zabalondo Loidi, Beatriz
33. Iturbe Tolosa, Andoni

AZP

34. García Vázquez, M^a José
35. Ocerin Beraza, Isabel
36. Kanpandegi Iturbe, Jon Ander
37. Laniella Fernández, Igor
38. Arandia Urriaga, Igone

Ikasleak

39. Rino Pardo, Celia
40. Figueroa Hernández, Agustina (*ez da bertaratu*)
41. Eriz Ávila, Lorea (*ez da bertaratu*)
42. García López, Oier (*ez da bertaratu*)
43. Lakuntza Bakaikoa, Mikel Adur
44. Apaolaza López, Naroa
45. Eizaguirre Aramendi, Julen Lur(*ez da bertaratu*)
46. Martínez de Albéniz Casales, Ainara (*ez da bertaratu*)
47. Amuskibar Sarasua, Ekai (*ez da bertaratu*)

2022ko urtarrilaren 28an, ostirala, 11:30ean, aurrez aurre eta telematikoki bildu da UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Batzarra, bigarren deialdian eta ohiko bilkuran eskatutako quoruma egiaztatu ondoren, dekanoa buru delarik eta bazterrean aipatutako pertsonak bertaratu direla. Hona aztergaien zerrenda:

1. Aurreko akta irakurri eta, ontzat joz gero, onartu.

Batzarrak aztertu ondoren, onartu egin da 2021eko azaroaren 26ko Batzarraren akta.

2. Dekanoaren txostena

Dekanoak zenbait gairi buruzko informazioa eman du.

2021eko abenduaren 13an ikasleek Klaustorako eta Fakultateko Batzarrerako izandako hauteskunderi buruz hasi da informatzen. Ikastegiko ikasle guztien %7,3 inguruk parte hartu zuen. Ez zen gorabehera aipagarririk izan, eta Ikasleen Kontseiluko bederatzi kideak honela banatu ziren: lau Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasleen hautagaitzarako, hiru UIBrako eta bi Ikasleok Martxan-erako. Urtarrilaren 26an eratu da ikasle kontseilu berria, eta Celia Rino presidente eta Agustina Figueroa idazkari izendatu ditu.

Horren ondoren, antolaketa akademikoari buruzko hainbat gai jorratu ditu: presentzialtasunaren aldeko apustua, COVIDek espero baino eragin txikiagoa izan du, Errektoreordetza eskudunak gradu, gradu bikoitz eta masterretarako plazen mugak onartu ditu, unibertsitate orientazioko azokak atzeratu da egoera pandemikoaren ondorioz, kultura jardueretarako laguntzen hogeita bederatzita eskaerak ebatzi dira, batxilergoko 1. mailako ikasleentzako praktikak maiatzean ikastegian egiteko egindako eskaera, ikastegiaren berrogeigarren urteurreneko jardueren erritmo ona, otsailaren 7, 8 eta 10eko GRAL Esperientziak. Amaitzeko, nabarmendu du – obrei dagokienez – otsailaren 7rako igogailu berriaren lanak amaituta zeudela.

Zalantzarik eta galderarik ez dagoenez, aztergaien zerrendako hurrengo puntuari heldu zaio.

3. 2021eko jardueren memoria eta txosten ekonomikoa

Dekanoak biak aurkeztu ditu, eta xehetasunetan sartu gabe azpimarratu ditu haien alderdirik nabarmenenak, Batzarreko kideek behar adinako aurrerapenaz jaso baitituzte bi dokumentuak. Zalantzarik eta galderarik gabe, Ikastegiaren Oinarrizko Arautegiaren 5.2.g artikulua hala aginduta, txosten ekonomikoa bakarrik bozkatu eta kontrako iritzirik gabe onartu da.

4. 2022/2023ko Eleaniztasun Plana

Irakaskuntzaren Antolakuntzako dekanordeari hitza eman ondoren, Ikastegiaren Oinarrizko Arautegiak ezarritako plana aurkeztu du dekanordeak. Zalantzarik eta galderarik ez dagoenez gero, kontrako iritzirik gabe onartu da bere horretan.

5. Ikerketa Ereduek eta Arloak Gizarte Zientzietan masterraren aldaketa

Dekanoak adierazi du funtsezko aldaketa denez Graduoko eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordeak 2019ko martxoaren 14an emandako Erabakiaren 4.2 artikulua babesean, ikastegiak alde aurretiko aldeko txostena eman behar du, ondoren, hala badagokio, Graduondoko Batzarreko onar dezan. Eta azaldu lau hileko irakasgai hauek urteko irakasgai bihurtuko direla: "El proceso de investigación", "Herramientas avanzadas de investigación en Ciencias Sociales I", "Herramientas avanzadas de investigación en Ciencias Sociales II", "investigación social en identidad, política y cultura" e "Investigación social en diversidad, exclusión y cohesión social". Aldaketa horrek Batzarren aldeko txostena lortu du.

6. Azpiegiturak erabiltzeko baimena

Dekanoak gonbita egin dio idazkariari puntu hau aurkez dezan. Honek esan du 2022/2023 ikasturterako lokalak erabiltzea baimentzekotan dagoela, betiere ikastegiko egoera kontuan hartuta, Suizidologiako Aditua edo eta Ilustrazio Zientifikoko Aditua tituluetan. Era berean, batzarrari eskatu zaio Bizkaia Aretoko lokalak erabiltzeko eskaera sostengatzeko, "Jokoaren Euskal Behatokia" jardunaldia 2023ko otsailaren 15etik 17ra bitartean egin dadin.

Batzarrak lokal propioak erabiltzeko baimendu du eta Bizkaia Aretuan lokalak erabiltzeko eskaera ere sostengatu du.

7.- Irakasleen plazak

Idazkari akademikoak hartu du hitza berriro ere, eta plazen eskaeraren alde agertzeko eskatu du:

- Bost plaza, 8. eranskina: 4 plaza, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Sailak proposatuta, 4 irakasle elkartu, elebidun, arduraldi partzialekoak (AUP6L1161, AUP6L1162, AUP6L1163 eta AUP6L2161); plaza 1, Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Sailak proposatuta, irakasle elkartu elebidun bat, partzialekoa, eskatuta (AUP3L12331).
- Hiru plaza, 10. Eranskina: plaza 1, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Sailak proposatuta, irakasle elkartu elebidun partzial bat finkatzeko (irakasgaiaren kodea: 27145); plaza 1, Ekonomia Aplikatuko Sailak proposatuta, irakasle atxiki elebidun bat sortzeko, arduraldi osokoa (irakasgaiaren kodea: 27088); eta plaza 1, Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Eskubidearen Filosofia Sailak proposatuta, irakasle elkartu elebidun partzial baten plaza sortzeko (irakasgaiaren kodea: 27098).
- Hamar plaza, 11. Eranskina: 6 plaza, Kazetaritza Sailak proposatuta (CUC8/13365, TUC8/13364, CUC8/13361, TUC8/13365, TEC/2/13362 eta LIUC8L333614). 2 plaza, Ekonomia Aplikatuko Sailak

proposatuta (TEC12/13648 eta AGC8L1368). 1 Soziologia eta Gizarte Langintzako Sailak proposatuta (AGC8L13376). Plaza 1, Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila sailak proposatuta (AGC8L133112). Batzarra aho batez agertu da eskaera horien alde.

8.- Galde-eskeak

Ainhoa Novo batzarkideak mintzatzeko txanda eskatu eta, ondoren, iraungiko diren planeko irakasgaien erregimenari buruz galdetu du. Dekanoak erantzun du irtenbidea ia bera dela eleaniztasuna epigrafean eskaintzen diren irakasgaientzat eta gainerakoentzat; izan ere, iraungi beharreko planeko irakasgaiak, berriar jaso ez direnak, irakaskuntzarik gabekoak izango dira.

Eta bestelako aztergairik izan ez denez, dekanok amaitutzat eman du batzarraren bilera 13:08an, eta, nik, idazkaria naizenez, horren fede ematen dut, Leioan, 2022ko urtarrilaren 28an.

Dekanoaren iritzia
Ana Irene Del Valle

Idazkari akademikoa
Esteban Arlucea